

Maiatzaren 1a, Lanaren Nazioarteko Eguna. Gazteen enpleguaren azterketa

Euskadin, 16 eta 29 urte bitarteko 100 gaztetatik 35 lanean dabilta, 14 langabezian daude eta gainontzekoak ikasten ari dira, nagusiki.

Maiatzaren 1a **Lanaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, EAEko gazteek enpleguari dagokionez bizi duten egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#) eta, nola ez, langabeziak azken urteetan izan duen bilakaera ere bai.

Azterketa hau 16 eta 29 urte bitartekoen egoeran oinarritzen da. Lan ordaindua izateko legezko adina dira 16 urteak (derrigorrezko hezkuntza amaitu eta gero), eta 29 urteetan dago Gazteen Euskal Behatokiak gaztaroa amaitzen den adin-muga (gazteen errealitatea aztertzen duten beste entitate batzuek, [INJUVE](#)k, Espainiako Gazteriaren Erakundea), kasu.

Azterketa hori egiteko, Euskal Estatistika Erakundeak, [Eustatek](#), Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko Inkestan emandako datuak erabili dira, nagusiki. Eustaten datu horiek Gazteen Euskal Behatokiarentzat kalkulatu dira, beren-beregi egindako eskaera baten emaitza baitira. Hori dela-eta, datuok [Behatokiaren estatistiketan](#) baino ez daude eskuragarri. Gainera, 2000ren eta 2011ren artean egindako azterlanetatik eratorritako datuekin osatzen da azterketa, bai Eusko Jaurlaritzako [Prospekzio Soziologikoen Kabinetea](#)ren eta Espainiako Gazteriaren Erakundearen (Injuve) datuekin.

Lehendabizi, Eustatek jarduerari eta enpleguari buruz eskaintzen dituen tasa nagusiak aztertuko ditugu, alegia: jarduera-tasa, enplegu-tasa eta langabezia-tasa.


Jarduera-tasak zera adierazten du: zenbat pertsona dauden lanean edo, une honetan lanean egon ezean, zenbat diren lan egiteko moduan daudenak. Beraz, okupatuak eta lan bila dabiltzan langabetuak sartzen dira multzo honetan. Dagokion adin-taldeko biztanleria osoaren arabera kalkulatzen da.

Eustatek Gazteen Euskal Behatokiari emandako datuen arabera, 2013ko lehen hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteen jarduera-tasa % 48,7koa izan da, hau da, **EAEko 16 eta 29 urte bitarteko 100 gaztetatik ia 49 lanean ari dira, edo lan egiteko moduan daude eta lan bila dabilta.**

Euskadiko gazteen jarduera-tasa jaitsiz joan da azken urteotan: 2005ean % 60,7koa zen eta % 48,7koa 2013ko hasieran.

16 urteko eta adin horretatik gorako biztanleen jarduera-tasa konstantea izan da azken urteotan, gutxi gorabehera, gazteena ez bezala.

Espainiako gazteen jarduera-tasak ere beheranzko joera izan du 2008tik aurrera, baina EAEkoa baino garaia goa da. Zer esan nahi du horrek? Espainian lan egiteko moduan dauden gazteen proportzioa –enplegua izan ala ez- handiagoa dela.



Jarduera-tasek ez dute alde handirik lurralde historikoen arabera: % 48,9 Araban, % 49,2 Bizkaian eta % 48 Gipuzkoan, une honetan.

Sexuei erreparatuta, ordea, badago alderik. 2011ra arte, jarduera-tasak garaiagoak izan dira gizon gazteen artean, emakume gazteen artean baino. 2011n bi tasak parekatu egin ziren, eta 2013ko lehen hiruhilekoan, garaiagoak dira nesken tasak (% 50,6) mutilenak baino (% 47), lehenbizikoz. Horrek esan nahi du **emakume gazte gehiago dabilela lanean edo lan bila**, gizon gazteak baino.

Lanean eta langabezian daudenek osatzen dute jarduera-tasa. Baina **zer egiten dute gazte inaktiboek?**

Lanean ez dabiltzanak eta lan bila ez dabiltzanak dira inaktiboak. EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, % 51,3 dira 2013ko lehen hiruhilekoan. Ikasleak, etxeko lanetan dabiltzanak, lan egiteko gaituta ez daudenak, jubilatuak, pentsiodunak eta errentistak dira.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2013ko urtarrilaren 31tik otsailaren 7ra bitartean egindako inkesta batean 16 eta 29 urte bitarteko 964 gazteri (aztergai dugun adin-tartea) euren okupazio nagusiari buruz galdetu zitzaion. Adin-tarte horretako gazteen erdiak (% 50) **ikasten** ari dira, nagusiki.

2007an eta 2008an, krisia hasi baino lehentxoago, ikasten ari ziren gazteen ehunekoa % 40 zen (Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuen arabera). Krisialdi-garai honetan, dirudienez, gazteak prestakuntzara bideratzen dira neurri handiangoan, enplegararritasuna areagotze aldera.


Eustatek emandako datuekin jarraituta, Euskadiko gazteen enplegu-tasak aztertzeraz igaroko gara jarraian.

Adin-tarte jakin batean, lanean dauden pertsonen ehunekoa adierazten du **enplegu-tasak**. EAEko gazteen enplegu-tasa % 34,7koa da 2013ko lehen hiruhilekoan. Horrek esan nahi du EAEn 16 eta 29 urte bitarteko adina duten **100 pertsonatetik 35 lanean ari direla une honetan**.


Gure gazteriaren enplegu-tasak **beherakada nabarmena** izan zuen 2008tik 2009ra, krisialdi ekonomikoaren hasieran, eta areago jaitsi zen 2011 eta 2012 artean. Aurten ere beheranzko joera du.

EAEko 16 urteko eta hortik gorako biztanlerian ere beherakada hori antzeman daiteke, baina ez da gazteengan bizi izan dena bezain bortitza.


EAEko gazteen enplegu-tasa Espainiako gazteena baino altuxeagoa da 2009tik aurrera; hau da, lana duten EAEko gazteen ehunekoa Espainiako gazteena baino handiagoa da.



Euskadiko gazteei dagozkien **datuen bilakaera lurralde historikoen arabera** aztertzen baditugu, hiru lurraldeetan **joera antzekoa** izan dela konprobatuko dugu. Hala ere, Araban joera irregularragoa izan da, eta gazte okupatuen beherakada bortitzagoa izan da 2011 eta 2012 artean, 2011n aldi baterako igoera gertatu eta gero. Bestetik, adierazi beharra dago Bizkaian enplegu-tasak EAEko batez bestekoaren azpitik egon direla beti, eta hiruhileko honetan Bizkaikoek beherakadarik handiena jasan dutela aurreko urtekoekin alderatuta (lau puntu).



Sexuaren araberako aldeei dagokienez, neska gazte gehiago dago orain lanean gizon gazteak baino. Orain arte, emakumeen enplegu-tasak gizonenak baino apalagoak izan dira, baina 2011tik aurrera, gazteen artean, datuak irauli egin dira. Hori dela-eta, nesken enplegu-tasak altuagoak dira mutilenak baino (bost puntuko aldea 2013ko lehen hiruhilekoan).




Baina, zeintzuk dira gazteen lanaren ezaugarriak?

EAEko gazteen % **90 soldatapekoak** dira, hau da, besteren kontura egiten dute lan. Horien artean, 2012an aldi baterako kontratua zutenak (% 50,6) gehiago ziren lan-kontratu mugagabea, finkoa edo etenduna zutenak baino (% 47,1). Euskadiko soldatapeko gazteen artean **aldi baterako lan-kontratudunen tasak nabarmen handitu dira** 2007-2011 epearekiko. Nolanahi ere, adierazi beharra dago tasa horiek are handiagoak zirela 2007 baino lehen.

Aldi baterako kontratudunen tasa 2012an garaixeagoa izan da EAEko gazteengan Espainiako gazteengan baino.

Gazteei buruzko datuak eta bilakaera biztanleria osoarenekin alderatzen baditugu, zera nabarmentzen da: aldi baterako kontratuduen tasa 16 urteko eta adin nagusiagoko soldatapekoenaren halako bi baino gehiago dela gazteena.



Bestetik, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteei egindako hainbat inkestatan ateratako datuen arabera, 2011n, lanean dabiltzan gazteen % 71 lanaldi osoan dabiltza eta % 28 lanaldi partzialean. Lanaldi partzialean lan egiten dutenen ehunekoa nabarmen areagotu da azken urteotan: % 20koa zen 2000n eta 2004an; % 28koa 2011n.

Gainera, lanean dabiltzanen % 59k lan doitua dute, hau da, prestakuntzarekin lotutako lana. Ehuneko hori handitu egin da aurreko urteetakoarekin alderatuta (% 52, bai 2004an, bai 2008an). Hala ere, euren lana ongi ordainduta dagoela, egonkorra dela edo etorkizunduna dela diotenak gutxiago dira aurreko urteetan baino.

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, LANA DUTENEN ETA EUREN LANAK HONAKO EZAUGARRIAK DITUELA DIOTENEN EHUNEKOEN BILAKAERA			
%	2004	2008	2011
Norberaren prestakuntzari lotua	52	52	59
Ongi ordaindua	58	50	47
Egonkorra	70	71	58
Etorkizunduna	67	68	58
<i>Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Estatistika propioak.</i>			

Lan egonkorra eta etorkizunduna dutela uste dutenen jaitsierarekin bat dator **lan idealaren ezaugarri nagusia egonkortasuna** dela dioten gazte aktibo nahiz inaktiboen ehunekoaren gorakada (% 31 2008an; % 42 2011n). Aitzitik, behera egin dute soldatari (% 27tik % 20ra) eta laneko giro onari (% 24tik % 18ra) buruzko aipamenek.

Engungo egoeraren aurrean, nabarmen handitu da atzerrira lanera joateko prest dauden gazteen ehunkoa (2004an, % 27 ziren; 2008an, % 29; 2011n, % 45).

Ba al dago alderik emakumeen eta gizonen lanaren artean?

Alderdi hau aztertzeke, Eustatek 2012ari buruz emandako datuak eta 2011ko inkesta batean une hartan lanean zeuden gizon-emakumeek emandako erantzunak hartu ditugu kontuan.

Soldatapeko emakume gazteen ehunekoak (% 92,7) garaixeagoak dira soldatapeko gizon gazteenak baino (% 88,2). Hau da, emakumeek hein handiagoan aukeratzen edo eskuratzen dituzte besteren konturako kontratuak enpresa publiko zein pribatuetan.

Soldatapekoen artean, ordea, kontratu mugagabe edo finko etendunak zabalduago daude mutilen artean (% 49,6) nesken artean baino (% 44,7). **Neskek aldi baterako kontratuak dituzte, hein handiagoan** (emakumeen % 51,8k eta gizonen % 49,4k), eta emakumeen artean ohikoagoa da ere kontraturik gabeko soldatapekoa izatea, (emakumeen % 3,6 eta gizonen % 1,0).

Lanaldi partzialeko lanaldien ehunkoa emakume gazteen artean (% 39) gizon gazteen artean aurki daitekeenaren halako bi baino gehiago da (% 18).

Neskek (% 60) hein handiagoan eskuratzen dute jasotako prestakuntzarekin lotutako lana —lan doitua— mutilek baino (% 57). Ez dago alde nabaririk batzuek eta besteek lanak egonkortasuna edo etorkizuna izateari buruz egiten dituzten balorazioetan.

Lana ongi ordainduta dagoen uste izateari dagokionez, gizon gazteak neurri handiagoan daude ados baieztapen horrekin neskak baino (% 48 eta % 45, hurrenez hurren). Hain zuzen ere, **gizonen soldata emakumeena baino altuagoa** da (batez beste, 30 urtez azpiko gizonek 1.100 € garbi jasotzen dituzte hilean, eta emakumeek 913 €).

Horrenbestez, esan dezakegu **emakumeen eta gizonen lanen arteko alde nagusia lanaldi-mota dela**: lanaldi partziala zabalduago dago emakumeen artean, eta horrek badu eraginik batzuen eta besteen batez besteko soldatan.

Lanaldi bera izanik, gizonen eta emakumeen soldata bera izango luketen jakin ahal izateko, lanaldi osoan dabiltzanak bakarrik hautatu ditugu. Kasu horretan, aldeek desagertzeraz jotzen dute, baina gizonen aldekoak dira, oraindik ere: lanaldi osoan lan egiten duten EAEko 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen hileko batez besteko soldata garbia 1125 €koa da, eta gizonena, 1169 €.

Aurkako muturra aztertuko dugu jarraian, hau da, gazteen langabezia.


Lanik gabe egonik, lan egiteko prest dauden eta lan bila aktiboki ari direnen (azken lau asteetan lana bilatzeko izapideren bat egin dutenak) ehunekoa adierazten du **langabezia-tasak**. Ez dira ez lan bila ez dabiltzan ikasleak ezta lan egin ezin duten pertsonak kontuan hartzen.

Eustatek Gazteen Euskal Behatokiari emandako azken datuen arabera, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa 2013ko lehen hiruhilekoan % **28,7koa** izan da. Beraz, ondoriozta dezakegu **lan egin nahi eta ahal duten gazteen laurdenek baino gehixeagok ez dutela enplegurik**.


Zifra hori **nabarmen handitu da** azken urteotan. Gazteen langabezia-tasarik apaleneko (% 5,7) urtetik hona, hau da, 2007tik hona, zifrak boskoiztu egin dira.

Gazteen langabezia-tasak EAEko biztanleria osoarekin alderatuz gero, zera konproba dezakegu: **gazteen langabezia-tasa biztanleria osoarenaren halako bi dela**, eta proportzio hori konstantea izan dela hainbat urtez.

Beste aldetik, EAEko gazteen langabezia-tasa Espainiako gazteenarekin (INJUVEk argitaratutako langabezia-datuak hartuta) konparatzen badugu, **Espainiako gazteen egoera nahiko txarragoa** dela konproba dezakegu: Espainiako gazteen langabezia-tasa 2013ko lehenengo hiruhilekoan % 44,6koa izan da.



Gazteen (16 eta 29 urte bitartekoen) langabezia-tasen **bilakaera sexuen arabera** aztertzen badugu, zera ikus dezakegu: EAEn, 2007tik aurrera, **langabezia-tasa altuxeagoa dela gizon gazteen artean neska gazteen artean baino**. 2013ko lehen hiruhilekoan, genero-aldea areagotu egin da 2012koarekin alderatuta (hiru puntutik bost puntura, gizonen eta emakumeen tasen artean).




EAEko biztanleria osoari dagokionez, joera-aldaketa hori beranduxeago gertatu zen. Izan ere, 2009an hasi ziren gizonen langabezia-tasak emakumeenak baino altuagoak izaten. Kasu honetan, genero-aldea gazteen artean dagoena baino txikiagoa da (bi puntukoa, 2013ko lehen hiruhilekoan).

Espanian ere, langabeziak gizon gazteengan eragin handiagoa du emakume gazteengan baino (2013ko lehen hiruhilekoan, % 46 eta % 43, hurrenez hurren).

Gazteen langabezia lurralde historikoen arabera aztertuz gero, zera ikus dezakegu: 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasak **Bizkaian** Araban baino **altuagoak direla**, eta, batik bat, Gipuzkoakoak baino askoz handiagoak ere.

Gazteen langabezia-tasek Bizkaian goranzko joera egonkorra izan dute 2008tik aurrera. Gaur egun, tasa 2012ko batez bestekoa baino zazpi puntu gorago dago eta EAEko batez bestekoa baino bost puntu eta erdi gorago. Areago, Bizkaiko gazteen langabezia-tasa gaur egun lurralde berean 2009an erregistratu zena halako bi da. Horrek esan nahi du enplegua suntsitzeko prozesua Bizkaian bortitzagoa izaten ari dela EAEko gainerako tokietan baino.

Gipuzkoak, aldiz, hobeto eutsi dio gazteen langabeziaren gorakadari (Euskadiko batez bestekoa baino zortzi puntu beherago dago), lurraldearen industria- eta kooperatiba-ehundurari esker.




Nolanahi ere, gogora dezagun langabezia-tasa kalkulatzeko, adin-tarte bereko biztanleria aktiboa hartzen dela aintzat (estatistika-bulego ofizialek nazioartean hartutako irizpideen arabera). Eta biztanleria gazte aktiboak ez ditu aintzat hartzen 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztiak, lan egiteko moduan daudenak baizik. Horrek esan nahi du lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten pertsonak ez direla kontuan hartzen.

Horrenbestez, gazteen langabezia-tasa % 28,7koa dela diogunean, ez dugu esan nahi biztanle gazte guztien % 28,7 langabezian daudenik, gaur egun, biztanle-multzo horren jarduera-tasa % 48,7koa da eta. % 28,7 horrek lan egin ahal eta nahi duten gazteei dagokie, lan bila dabiltzan baina aurkitu ezinik dabiltzan horiei.

16 eta 29 urte bitarteko gazte-kopuru osotik langabezian daudenak zenbat diren kalkulatz gero, ehunekoa % 14koa izan da 2013ko hiruhilekoan. Biztanleria gazte osoari doitutako langabezia deritzogu horri.

Biztanleria gazte aktiboaren gainean kalkulaturako langabezia-tasak bezala, langabezia doituak ere aldaketa handiak izan ditu azken urteotan. 2000. urtean gazteen % 14,6 langabezian zeuden; 2007an, ordea, gazteen % 3,3 baino ez. Azken zifrak duela hamahiru urte erregistratutakoen oso antzekoak dira.



Langabezia doitua lurralde historikoen arabera kalkulatzeko badugu, zera ikus dezakegu: Bizkaian, gazteen % 16,8 langabezian daudela; Araban, % 12,5; eta Gipuzkoan, % 9,9.

Sexuen arteko aldeei erreparatuta, mutilen langabezia % 14,8an kokatuta dago, eta neskena % 13,2an.

Horrenbestez, zera ondoriozta daiteke: Euskadin **gazte gehiago** dagoela **lanean** (% 34,7), **langabezian baino** (% 14). Nolanahi ere, **askoz gehiago** dira **ikasten ari direnak** (% 50).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

